# Artxandako jolas-parkeak zaharraren xarma erakutsi du



Behin ba omen zen Artxanda izeneko jolas-parke eder bat, non bertara hurbiltzen ziren guztiak, txiki zein handi, pozik eta alai ibiltzen ziren. Egun batean, duela hamazazpi urte, Itxiera eta Denbora izeneko izaki ikaragarri batzuek parkea euren menpe hartu zuten, eta dena aldatu zen... M.Egimendi. Argazkiak: Mikel Martinez de Trespuentes.

Orain han ez dago umeei gozokiak **partitzen**[1] ibiltzen zen Basajaun haren arrastorik. Oportoko jolas-parkera alde egin omen zuen Noria eta Mendi Errusiarra izeneko dama handiekin, Tren Mamua, Olagarroa, Zizare Zoroa eta beste atrakzio batzuekin batera. Zazpi ipotxen etxean ere Edurne Zuri eta ipotx bat falta dira. Neska gazteak arrastorik utzi gabe egin zuen ihes, baina ipotxa hilik agertu zen parkeko zoko batean. Han dago oraindik ere bere gorpua, ikertzaileak noiz helduko zain. Gainontzeko sei ipotxak etxean daude, ohetik altxatu ezinik geratu ziren, eta aurrez aurre dute ipuineko sorgina. Sorgin zaharrari begiak atera zizkion gupidarik gabe Denborak (ala Itxiera izan zen?), gertatutako krimenaren lekuko izan ez zedin. Entzun, entzungo zuen zerbait, baina ezin ezer ikusi, eta ezin inor salatu.

Badirudi Artxandako parke alaia basamortu beldurgarri eta hilerri bihurtu zen egun hartan ekaitzak ere **bereak eta bi**[2] egin zituela. Tximista batek jota bezala, atetik hurbil baina barruan, gogortuta geratu ziren betiko lehoi emea eta hartza. Orain begi izoztuak diren horiekin ikusi zutena ezin dute kontatu. Zer izan ote zen begi horiek ikusi zuten azkena?

Parkeko zaindarien txakurra ere bertan dago lurperatuta, gurutze **eta guzti**[3]. Eta zaindariek? Zer diote zaindariek? Bada, ezer ez, 1974an ireki zen parkearen ateak 1990ean itxi zirela, eta eurek ez zutela ezer ikusi. Kontzertuetarako erabiltzen zen auditorioko jesarleku batzuek begi borobil-borobilak dituzte (handik pasatutako artistaren batek ipini omen zizkien). Aulki horiek ziur aski ikusiko zuten zerbait, baina haiek ere mutu baino mutuago daude.

Ez dago ez umerik, ez gurasorik, ez dago musikarik, ez dago animalia bizirik... Bai! Animaliak bai! Saguak, arratoiak, igelak eta apoak garai batean igeritokia izan zen putzuan... Eta animalia ote da Etxe Sorginduko ilunpetan hegan sumatzen den **zer**[4] hori?

Parkeko biztanleak joan zirenean, Itxierak eta Denborak behartuta, beste biztanle batzuk etorri ziren bertan biztzera, okupa mugimendua ez baita gizakiengana mugatzen. Aipatutako animalia txikiez gain, bertan hartzen dute orain atseden telefono-kabina zaharrek, erabiltzen ez diren zabor-edukiontziek, garai batean errepideetan ibilitako pneumatikoek, autobusen geralekuetan egondako markesinek... Horiek dira parkeko herdoil eta sastraka artean bizi diren "pertsonaiak".

## Bisitariak tropel txikietan

Badirudi parkeko biztanle berriak ez daudela oso pozik urrian Artxandan ibili diren bisitariekin, azken urteotako "bakea" apurtu duten horiekin. Izan ere Consssoni produkzio etxeak antolatu dituen bisitaldietan parkea ikustera joan diren lagunak zarata han-













### Hainbat datu

- Artxandako parkea aitzindaria izan zen sarrera bakar bat kobratuta atrakzio guztietarako sarbidea ematen.
- 1974an inauguratua, **ordurako**[5] parkeko kartel asko euskaraz ere agertzen ziren.
- Urtean bost bat hilabetez egoten zen irekita eta hamahiru langile finko zituen.
- Eraikuntzarako erabilitako estiloa brutalismoa izenekoa izan zen, garai hartan oso hedatua (porlana jaun eta jabe).
- Parkeko piramide gorri ezagunak arkitektoa Egiptorako bidaia batetik etorri berri izanaren ondorio dira.
- Itxi zutenean erabiltzeko moduan zeuden atrakzioak Oportoko jolas-parkeari saldu zizkioten 50 milioi pezetan.
- Egun Bizkaiko Foru Aldundiak erabiltzen du biltegi moduan.
- Ertzaintzak ere erabili du txakurrak entrenatzeko.
- Orain urtean 300.000 euro kostatzen da mantentzea, baina desegitea oraindik ere garestiagoa izango litzateke.

**1. Parti(tu):** *bana(tu).*
**2. Bereak eta bi:** *kristorenak.*
**3. Eta guzti:** *con… y todo (es), et tout (fr).*
**4. Zer:** *zehaztu gabeko gauza bat izendatzeko ere erabiltzen den galdetzailea.*
**5. Ordurako:** *une hartarako.*









diz ibili dira, hunkituta, aspaldian buruaren lekurik ezkutuenean zituzten oroitzapenak azaleratzen hasi zaizkienean: "*Ni hemen Miguel Boseren kontzertuan egon nintzen! Eta nik Alaska eta Pegamoideak ikusi nituen! Zelako muturrekoak hartu genituen Ispiluen Etxean! Hemen gidatu nuen nik lehendabiziko aldiz auto bat! Ezkontza egunean gonbidatu batzuk nahiko mozkortuta ekarri genituen, baina berehala pasatu zitzaien mendi errusiarrera igo zirenean! Nik uste nuen hau askoz ere handiagoa zela!*".

Izan ere, bisitari horiek **gogoan**[1] dituzten atrakzioak oso aldatuta daude, erabat utziak, eroriak, herdoilduak, baina Saioa Olmo artistak eta Consonni etxeak horien xarma aurkitzen jakin dute, berriro bataiatu dituzte, eta bizitza berria eman diete. Esate baterako, antzina bulegoa zen eraikuntzari Oroitzapenen Dorrea deitu diote. Han daude oraindik parkeko artxiboetan gordeta langileen nominak, egunkari zaharretako zatiak... eta igerilekura sartzeko egin behar ziren txartelak, erabiltzailearen argazki eta guzti. Bisitariren batek baino gehiagok aurkitu omen du berea edo ezagunen batena. Han agertu da Iñigo Urkullu politikariarena ere, parkea itxi zutenean Bizkaiko Foru Aldundiko Gazteria arduraduna zena.

Ordu eta erdi irauten duen bisitaldi hauetako bakoitzean hogei laguneko taldeak ibili dira bi lagunen gidaritzapean, guztiak ere kaskoak jantzita, parkearen egoerak hala agintzen duelako. Parkea itxi eta hamazazpi urtera berriro sartzeko zoria izan dutenak pribilegiatuak direla esan genezake, eskaera askoz ere handiagoa izan baita: hirurehun lagun baino gehiago daude itxaron-zerrendan, badaezpada. Izan ere, bisitaldiak urrian hasi eta amaitu dira, baina Consonni produkzio etxea finantziazio bila dabil bisitekin aurrera jarraitu ahal izateko. **Batek daki**[2], Artxandako jolas-parkeak agian berriro irekiko ditu ateak udaberri aldera.

**1. Gogoan izan:** *gogora(tu).*
**2. Batek daki:** *auskalo.*

# HASERREA lantzen




**Haserre daude, baina ez dute istilurik nahi. Besterik gabe, beraien haserrea azaldu nahi dute. Eta, hortik abiatuta, irtenbideak bilatu. Euskal Herriko artisautzaren oraina eta geroa argituko dituen bidea topatu. Horretarako, *Haserre nago!!* ekimeneko kideek euren ezagutza eta euren eskuak erabili dituzte. Salatzeko, sumina[1] ezagutarazteko. Baina petraldu[2] gabe, noski. Eñaut Mitxelena.**

Esku pilotan aritzeko pilota karratua? Zabaldu ezin daitekeen egurrezko kutxa? Zuloz **jositako**[3] kaikua? Erotu egin al dira halako piezak egiten dituzten artisauak? Ez, noski. Artisautzak Euskal Herrian bizi duen egoerarekin nazkatuta daude, haserre. Haserre hori ezagutarazi eta gizarteratzeko egin dituzte objektuok 35 artisau profesionalek, eta erakusketa ibiltari batean paratu. Iazko abendutik batetik bestera darabilte *Haserre nago!!* izeneko erakusketa, euren haserrea agertzearekin batera artisautzaren egoeraren inguruan gogoeta bultzatzeko xedearekin.

35 artisauk osatu dute *Haserre nago!!* ekimena, eta beste hainbeste lan **atondu**[4] dituzte erakusketarako. Zentzurik gabeko piezak dira, artisau lanen berezko funtzionalitateari **muzin**[5] egiten diotenak. Agerian, ustez ezertarako balio ez dutenak. Baina salaketa garbia plazaratzen dutenak. "*Halako piezak ikusita, zerbait ez dagoela ondo sumatu dezake jendeak*", diosku Jose Pablo Arriaga **zurgin**[6] markinarrak. Euskal Herriko artisautza da eri, ez dabil ondo. "*Finean, eskulangileok bizi dugun egoeraz ohartarazi nahi dugu jendea*", azaldu digu ekimenean parte

**1. Sumin:** *haserre, amorru.*
**2. Petral(du):** *haserra(tu), zakar(tu).*
**3. Josi:** *1. coser (es), coudre (fr); 2. bete.*
**4. Aton(du):** *presta(tu), molda(tu).*
**5. Muzin egin:** *uko egin.*
**6. Zurgin:** *arotz.*